



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
udala@arantza.eus
www.arantza.eus

OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Organoa: Udalbatza

Deialdia: Lehenengoa

Bilera mota: Arrunta

Eguna: 2023.11.24

Ordua: 19:00

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- JARDUNEKO ALKATEA: Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.
- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.
- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIAK:

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. Egusuta eta Otsuneko Bordako bideen zolak berritzeko obrei dagokion kontribuzio berezia ordainaraztea onartzea.
3. Alkate Ebazpenak.
4. Galderak eta eskaerak.
5. Euskararen Nazioarteko egunaren adierazpen instituzionala.

1. AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONESPENA.

2023/10/30eko osoko bilkura arrunteko akta AHO BATEZ ONETSI da.

2. EGUSUTA ETA OTSUNEKO BORDAKO BIDEEN ZOLAK BERRITZEKO OBREI DAGOKION KONTRIBUZIO BEREZIA ORDAINARAZTEA ONARTZEA.

Egustua eta Otsuneko Borda auzo-bideetan zolatzelanak egiteagatik kontribuzio bereziak ezarri eta antolatzeko izapidetzen ari den espedientea ikusi da. Espedientean jasota dago kontribuzio berezien ezarpenaren eta antolamenduaren justifikazioa, egin beharreko obrek subjektu pasiboak onura bat lortzea edo bere ondasunen balioa handitzea dakartelako.

Kontribuzio berezien zerga-oinarria zehaztu da, eta zolatzel-obren kostua honako xehetasun hauen arabera izanen da:

| EGUSUTA | |
|--|------------------|
| CONCEPTO | COSTE (€) |
| Repaso explanación, terreno de tránsito, con retroexcavadora | 518,47 |
| Contrucción pavimento de hormigón en masa, pnte>10%, hf-3,5, N/mm2 | 17882,77 |
| Relleno de bordes de pavimento | 593,03 |
| <i>PEM</i> | 18994,27 |
| <i>GG (%10) Y BI (%5)</i> | 2849,14 |
| <i>PEC</i> | 21843,41 |
| <i>HONORARIOS Y DIRECCIÓN DE OBRA SOBRE LA MEMORIA TOTAL</i> | |
| | 4788,75 |
| <i>HONORARIOS Y DIRECCIÓN DE OBRA APLICABLE</i> | |
| | 2680,70 |
| <i>Ud partida alzada por portes y traslados entre tajos</i> | |
| | 1231,47 |
| <i>GG (%10) Y BI (%5)</i> | 184,72 |
| <i>PEC (PROPORCIONAL DE OBRA APLICABLE)</i> | 792,77 |
| <i>TOTAL PRESUPUESTO (SIN IVA)</i> | |
| | 25316,89 |
| <i>TOTAL PRESUPUESTO (CON IVA)</i> | |
| | 30633,43 |

| OTSUNEKO BORDA | |
|--|----------------|
| CONCEPTO | MEMORIA |
| Repaso explanación, terreno de tránsito, con retroexcavadora | 143,22 |
| Contrucción pavimento de hormigón en masa, pnte>10%, hf-3,5, N/mm2 | 4420,46 |
| Relleno de bordes de pavimento | 163,82 |
| <i>PEM</i> | 4727,50 |
| <i>GG (%10) Y BI (%5)</i> | 709,13 |
| <i>PEC</i> | 5436,63 |
| <i>HONORARIOS Y DIRECCIÓN DE OBRA SOBRE LA MEMORIA TOTAL</i> | |
| | 4788,75 |
| <i>HONORARIOS Y DIRECCIÓN DE OBRA APLICABLE</i> | |
| | 667,20 |

| | |
|--|----------------|
| Ud partida alzada por portes y traslados entre tajos | 1231,47 |
| GG (%10) Y BI (%5) | 184,72 |
| PEC (PROPORCIONAL DE OBRA APLICABLE) | 197,31 |
| TOTAL PRESUPUESTO (SIN IVA) | 6301,14 |
| TOTAL PRESUPEUSTO (CON IVA) | 7624,38 |

Onuradunek honela finantzatu dute ehuneko hori:

EGUSUTA:

- Subjektu pasiboa: Jose Ramón Amoros Oscoz
- Subjektu pasiboak finantzatu beharreko zenbatekoa: 6.126,69 €

Subjektu pasiboak finantzatu beharreko ehunekoa kostu osoaren % 20,00 da, eta Udalak honela ordainduko du aldea, 1 4121 6920002 ABELTZAINZA AZPIEGITUREN MOLDAKETAK aplikazioaren kontura:

| KONTZEPTUA | PORTZENTAJEA (%) | ZENBATEKOA (€) |
|--|------------------|----------------|
| Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza, abeltzaintzako tokiko azpiegiturak sortu eta hobetzeko 2022 | 33,82 | 10.358,75 |
| Arantzako Udalaren baliabide propioak | 46,18 | 14.147,99 |

OTSUNEKO BORDA:

- Subjektu pasiboa: Maria Nieves Bergara Lazkano
- Subjektu pasiboak finantzatu beharreko zenbatekoa: 1.524,88 €

Subjektu pasiboak finantzatu beharreko ehunekoa kostu osoaren % 20,00 da, eta Udalak honela ordainduko du aldea, 1 4121 6920002 ABELTZAINZA AZPIEGITUREN MOLDAKETAK aplikazioaren kontura:

| KONTZEPTUA | PORTZENTAJEA (%) | ZENBATEKOA (€) |
|---------------------------------------|------------------|----------------|
| Arantzako Udalaren baliabide propioak | 80,00 | 6.099,50 |

Aurreikusitako dirulaguntzak baino gehiago lortzen badira, kontribuzio berezien subjektu pasiboek ordaindu beharreko kuota murriztuko dute.

Espedientean subjektu pasiboak zehaztu dira.

Banaketa-modulua esku hartzen den lekuko etxebizitzek osatzen dute.

Udal idazkari-kontu-hartzaileak egindako txosten juridiko-ekonomikoa aztertu da.

Osoko bilkuran dauden kideek, informazioa entzun ondoren, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Egusutako eta Otsuneko Bordako auzo-bideetan zoladura-lanak finantzatzeko ekarpen bereziak ezartzea.

2.- Subjektu pasiboek honela finantzatuko dute ehunekoak:

| INBERTSIOA | KOSTU TOTALA | SUBJEKTU PASIBOA | % | FINANTZAKETA (€) |
|-------------------|---------------------|------------------------------|----------|-------------------------|
| Egusuta | 30.633,43 | Jose Ramón Amoros Oscoz | 20,00 | 6.126,69 |
| Otsuneko Borda | 7.624,38 | Maria Nieves Bergara Lazkano | 20,00 | 1.524,88 |
| | 38.257,81 | | | 7.651,57 |

Aurreikusitako dirulaguntzak baino gehiago lortzen badira, kontribuzio berezien subjektu pasiboek ordaindu beharreko kuota murriztuko da.

3.- Kontribuzio bereziak ordaintzeko eskatzea, aurtengo behin betiko kostuaren zenbatekoaren arabera.

4.- Subjektu pasibo bakoitzari kuotak banan-banan jakinaraztea, inbertsio bakoitzerako kostuen eta dirulaguntzen laburpen-taularekin batera.

3. ALKATEAREN EBAZPENAK.

152/2023tik 157/2023ra Alkate Ebazpenak azaldu eta AHO BATEZ BERRETSI EGIN DIRA.

4. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.

Halaber, hurrengo osoko bilkura abendua bukaeran egingen dela jakinda eta honako akordio hau hartzeko dagoen premia ikusirik, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 81.2. artikuluan xedaturikoaren arabera, honako puntu hau osoko bilkura honetan eztabaidatu daitekeela dio idazkariak. Osoko bilkurak, ADOSTU DU "Euskararen Nazioarteko egunaren adierazpen instituzionala" osoko bilkura honetan lantzea.

5. EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

Euskaldunak gara, euskaraz gara, eta hori da gure herrien nortasunaren ezaugarri esanguratsuenetakoa: udalerrri euskaldunak gara. Mendeetan zehar gure hizkuntza zamatu duten debeku, eraso, jazarpen eta erabakien gaineratik, aurten bertan ezagutu ditugun datuek argi diote: oraindik ere gure herritarren gehiengoak euskalduna da, beste inon baino sendoago dago gurean euskara, eta udalerrri euskaldunak gero eta gehiago dira. Gurean ere asko aldatzen ari da erreliatea, ordea, eta egiteko konplexuak dauzkagu aurretik; hala ere askoren artean urte askoan egindako lanaren uzta ageriko da: ezagutzak gora egin du, gero eta euskaldun gehiago gara, eta horrek ekarri du udalerrri euskaldunen lurgunea handitzea, besteak beste.

Euskararen Nazioarteko Eguna, urtero, zer garen gogoratzeko eguna izan ohi da. Herri honek munduari ematen dion kolorea euskara dela esateko eguna. Harrokeriarik gabeko harrotasun eguna. Ospakizuna. Aurten, ordea, lanbrotuta ditugu bazterrak. Hilabetez hilabete ainubera kondenatu nahi izan gaituzte. Behin eta berriro. Euskararen aurkako erasoek ez dute etenik izan, eta epaitegietatik heldu den oldarraldiak marra gorriak gainditu ditu, euskararen beraren ofizialtasuna ere zalantzan jartzeraino.


Euskal jendarteak eta euskal erakundeek urte askoan kontsentsu zabalarekin egindako bidea mugatu nahi izan dute. Udalerrri euskaldunek bertako hizkuntza biziberritzeko eta euskara dagokion lekura itzularazteko egiten ditugun urratsak debekatu nahi dizkigute. Gazteleraren makulupean ibiltzera eta bigarren mailakoak izatera behartu nahi gaituzte. Baina euskara da gure herriko hizkuntza propioa, eta hori sustatzen jarraitzeko beharra daukagu udalerrri euskaldunek.

Izan ere, erakundeei eredu izatea dagokigu. Herritarren eredu. Ahalegin eta konpromiso handiari esker, larreako nahi zuten hizkuntza noranahikoa izatea lortu du herri honek, eta ezin dugu zabaldutako bidean atzera egin. Berdatzen hasitako basoa berriro lehortzea onartu. Horregatik, udalerrri euskalduna garen heinean, adierazpen honekin bi konpromiso ezagutarazi nahi ditugu. Batetik, euskararen biziberritzean eta herritarren hizkuntza eskubideen defentsan eredu eta bideurratzaile izateko konpromisoa. Bestetik, euskarak ezinbestekoa duen lege-babesa lortzeko lanean gainerako erakundeen eta eragileen bidelagun izateko konpromisoa.

Gaur egungo atakari aurre egiteko benetako lege-orubea behar baitu euskarak, erdaren erauntsiari aurre egiteko egiturazko neurri sendoak behar dituen bezala. Dagokigun arduratik, horiek lortzeko lanerako eta elkarlanerako ordua dugu orain erakundeok, inoiz baino gehiago. Euskararen lurgunea handitu dela esateaz gain, euskararen lurgunea sendotu ere egin dela ikus dezagun hurrengo urtean. Izan gaitezen eredu. Lehenetsi etorkizuna. Erakutsi eguzkia ainubean denari. Eman diezaiegun euskara eta bidea herritarrei.

Bertze aztergairik izan gabe, 19:45ak direnean, jarduneko alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

JARDUNEKO ALKATEA,



Dabid Iturria Almandoz



**Ziurtatzen dut
IDAZKARIA,**



Nagore Madariaga Iriarte

